

Gure Lurra

- Sej euskalki.
- Leiñuak kontuan artu.
- Araba'n.
- Gipuzkoerea.
- Lapurteera.
- Naparrera bi.
- Erronkarin Galdua.
- Iparraldean Larri.
- Atzeraka.
- H'aren burrukea.

LEIÑUEN EUS (EREA

Euskera bat da, baiña alde guztietan ez da bardin egiten.

gure jzkuntza zaarrak, Gernjkako arbolaren antzera, adarrak ditu.

Zeintzuk djra, eta noraiño zabaltzen dira Euskeraren adar orrejok?

Aurreko lanean esan genduen erromatarren aldiari euskal leiñu edo tribu bako txak bere euskera apartekoa egiten ebala.

Euskeraren zati orrej guk "euskalkjak" esaten deutsegu.

Euskerak gaur sei zati edo euskalki ditu: Bizkaiera, Gipuzkoera, Lapurtera, Goi-naparrera, Beenaparrera eta Zuberera.

Euskalki bakotxa non egiten dan, eta zenbatek, mapa onetan argi ikusi zeinke, irakurle.

Aurreko mapa au ikusiz, laster konturatuko zara, bizkaieraz ez dala Bizkajan bakarrik egiten, baita Gjpuzkoako zati andi baten ere: Eibar, Soraluze, Bergara, Arrasate, Oiñati, Aretxabaleta... Gipuzkoako erriak izanik bizkaieraz egiten dabe.

Arabako Aramaion ere bizkaieraz egiten dabe, eta leenago Araba osoan Bizkaieraz, edo beintzat bizkaiera antzeko euskalkj bat itzegiten zan.

Zenbat gara, beraz, bizkaieraz egiten dogunok? 200.000 euskaldun.

Gjpuzkoeraz, ostera, ez da Gjpuzkoa osoan egiten.

Donostjatik arantz, Bjdasoia ibajraiño, Goi-naparreraz egiten da, baiña Altsua aldean ere gipuzkoeraz egiten da, eta alde au Naparroa da.

Gjpuzkoeraz egiten dabenak beste 200.000 euskaldun dira.

Lapurteraz ere ez da Laburdj osoan egiten, mapan ikusten danek.

Baiña Naparroako Baztan aldean lapurteraz egiten dabe.

Naparrak, ostera, bi euskalki erabiltzen dabez: beste aldekoak Beenaparreraz, eta gure aldekoak Goi-naparreraz.

Goi-napar euskaldunak 50.000 dira, eta Beenaparrak 5.000.

Zuberera bizilagunez urria da, eta ango euskaldunak oraindik gitxiago: 11.000 bakarrik.

Erronkarin (Ronkal) euskera galdu da.

Ango azken euskaldun aitona zaarra orain 5 urte il zan.

Tamalgarri da esatea, baiña egiarentzat zorretan gagoz, eta Ipar-Euskadiko Euskera larri ta estu dabil bizirik irauteko. Euskaltzajndiak oraintsu argitaratu duan "El Libro Blanco del Euskera" k diño: "la presión de la lengua oficjal (el francés) ha

hecho recular al vjejo euskara hasta el punto de que se tema seriamente por su suerte como lengua viva y popular". p. 145.

| | |
|----------------|-------------------|
| Bjzkaieraz | 200.000 |
| Gipuzkoeraz | 200.000 |
| Goi-naparreraz | 50.000 |
| Beenaparreraz | 55.000 |
| Lapurteraz | 22.000 |
| Zubereraz | 11.000 |
| Gutziz | 538.000 euskaldun |

Mapa au, eta zenbakj (dato) oneik begjen aurrean eukirik zera jkasi bear dogu: Orain eun urte euskeraz agiten ebenak eunetik 52 ziran.

Gaur euskeraz dakjgunak eta egiten dogunak eunetik 22 bakarrik gara.

Euskera atzeraka doa, eta gure arteko burrukak itxita, euskaldun guztiok euskararen alde jator jokatu bear dogu.

Osterantzean euskera ilgo da.

Frankoren diktadurapean, euskaldunak (zaar eta gazteak) "h" bai eta "h" ez, lotsagarritzko burrukan ibilli gara.

Zuok 15-20 urteko gazteok ez zaiteze gure antzera burrukan ibilli.

Nok daukan arrazoja zuok jkusi.

Auzi au zuok garbitzeko dato-zenbaki oneik emoten deutsuedaz:

450.000 euskaldunek ez dabe "h" erabiltzen.

98.000 euskaldunek "h" erabiltzen dabe. Zuok erabagi.

Goikoetxea'tar Iñaki.